

## BlackBerry IDaren Akordioa

BlackBerry IDaren Akordioa edo "Akordioa" legezko akordio bat da eta hori hitzartu duten alderdiak dira, batetik, Research In Motion Limited edo zure jurisdikzioan aplikagarria den BBSLAN zehaztutako filialak edo ordezkioak ("RIM") eta, bestetik,

- a) zu, zeure buruaren izenean. Helburuak hauek dira:
  - i. BlackBerry IDa sortzea eta administratzea (BlackBerry IDaren Baldintzak atalean zehaztu moduan); eta
  - ii. zuk, norbanako gisa, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak atzitzea eta horiek erabiltzea (BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien Baldintzak atalean zehaztu moduan); edo
- b) ordezkatzun duzun enpresa edo erakundea ("Zure Enpresa"), BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak atzitzeari eta erabiltzeari dagokionez,

edozein dela ere aplikagarria ("**Zu**")

BEHEKO "ONARTZEN DUT" AUKERA SAKATUTA, AKORDIO HAU IRAKURRI ETA ULERTU DUZULA, ETA ERRESPETATUKO ETA BETEKO DUZULA ONARTZEN DUZU. BEHEKO "ONARTZEN DUT" AUKERA SAKATU BAINO LEHEN, EGIAZTATU AKORDIO HAU IRAKURRI DUZULA, BAITA ERREFERENTZIA GISA ERANTSITAKO BESTE DOKUMENTUAK ERE, BBSLA (BEHEAN DEFINITUA) ETA RIM-EN PRIBATUTASUN-POLITIKA BARNE. AKORDIO HAU ONARTZEN EZ BADUZU, EZIN IZANGO DUZU BLACKBERRY IDrik (JARRAIAN DEFINITUKO DA) ERREGISTRATU, EZ ETA BLACKBERRY IDaren ZERBITZU ESKURAGARRIRIK ATZITU EDO ERABILI ERE.

Ezin izango duzu Akordio honetan parte hartu, ez eta BlackBerry IDan (jarraian definituko da) saioa hasi ere, baldintza hauek betetzen ez badituzu: (a) hemezortzi (18) urte baino gehiago izan; eta (b) zure jurisdikzioan, legez, adinez nagusia izan

### A. BLACKBERRY IDaren BALDINTZAK

1. **BlackBerry IDa.** RIMen zerbitzuak eta hirugarrenen zenbait zerbitzu ("BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak") atzitzeko, BlackBerry IDa beharko duzu. BlackBerry IDaren erregistratze-inprimakia betez eskuratuko duzu hori.
2. **BlackBerry IDa eskuratzeko erregistratzea.** Erregistratze-inprimakian, zure BlackBerry ID gisa erabili nahiko duzun helbide elektronikoa idazteko eskatuko zaizu. Halaber, erabiltzaile-informazioa emateko eta BlackBerry IDari lotuko zaion pasahitza sortzeko ere eskatuko zaizkizu. BlackBerry IDa lortutakoan, BlackBerry IDa erabili ahal izango duzu Zeure burua norbanako gisa identifikatzeko BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak erabiltzen dituzunean. **Kontuan hartu eskuratzun ari zaren BlackBerry IDa norbanako gisa erabiltzeko dela.** BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak zure enpresaren izenean erabiltzen ari bazara, baliteke Zure enpresak bere kontua izatea RIMekiko edo dagokion hirugarren alderdiarekiko eta, halere, Zuk zure BlackBerry IDa erabili behar izatea kontu horretako erabiltzaile baimendua zarela erakusteko.
3. **BlackBerry IDaren erantzukizuna.** BlackBerry IDa ezin da besterendu. Zure ardura da pasahitza isilean eta segurtasunez gordetzea. Halaber, zurea da Zure BlackBerry IDari emandako erabileraren ardura ere. Onartzen duzu: (a) dagokion erregistratze-inprimaki aplikagarrian Zeure buruari buruz eman duzun informazioa benetakoa, zehatza,

eguneratua eta osatua dela; eta (b) behar denean ahal bezain arin eguneratuko duzula informazio hori, benetakoa, zehatza, eguneratua eta osatua izaten jarrai dezan.

4. **RIMekiko oharra.** Onartzen duzu (i) Zure pasahitza edo BlackBerry IDa baimenik gabe erabili bada edo antzeko segurtasun-hausteren bat gertatzen bada berehala emango diozula RIMi horren berri, eta (ii) BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak erabiltzeari uzten diozun bakoitzean, saioa amaitu duzula egiaztatuko duzula, horretarako aukera ematen zaizun guztietan. Jakitun zara eta onartzen duzu RIM ez dela BlackBerry IDa erabiltzeagatik edo aipatutakoa ez betetzeagatik sortutako inolako galeraren edo kalteren erantzule.
5. **Zure BlackBerry IDa bertan behera uztea.** Zure BlackBerry IDa edonoiz utz dezakezu bertan behera, RIMi BlackBerry IDa amaitzeko eskaera bidalita.
6. **RIMek BlackBerry IDa bertan behera uztea.** BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri jakin baten Eranskinen baldintzetan besterik adierazi ezean, RIMek, bere erabakimen osoz, inolako zitaziorik egin gabe eta administrazioko edo auzitegi-tako inolako prozeduraz baliatu gabe, eten edo bertan behera utz egin dezake Zure BlackBerry IDa arrazoi hauengatik, baina hauetara mugatu gabe: (a) akordio hau edo barnean dituen beste akordio edo arau batzuk ez betetzeagatik edo urratzeagatik, (b) legea betetzeagatik edo gobernuko erakundeek egindako eskaerengatik, (c) ustekabeko arazo teknikoengatik edo segurtasun-arazoengatik, (d) denbora luzez ez erabiltzeagatik, (e) Zu iruzurrezko zein legez kanpoko jardueretan edo jarduera ilegaletan ibiltzeagatik.
7. **Bertan behera uztearen jadanekotasuna.** Zure BlackBerry IDa bertan behera uzteak ondorio hauek izango ditu: (a) Zure pasahitza ezabatzea, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri jakin baten baldintzetan edo Zure BlackBerry IDari lotutako informazioan, fitxategietan eta Edukian (edo horien zatiren batean) besterik adierazten ez bada; eta Zure BlackBerry IDa bertan behera uztearen edo etetearen beste ondorio bat izango da (b) BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri guztien edo batzuen erabilera mugatzea, zedarritzea, etetea edo behin betiko debekatzea. Onartzen duzu RIMek ez duela zurekiko edo hirugarren alderdiekiko erantzukizunik izango Zure BlackBerry IDa bertan behera uzteagatik edo eteteagatik, ez eta horren ondorioz BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri guztien edo batzuen erabilera mugatzeagatik, eteteagatik edo behin betiko debekatzeagatik ere.

## **B. BLACKBERRY IDaren ZERBITZU ESKURAGARRIEN BALDINTZAK**

1. Akordio hau onartu behar duzu Blackberry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak atzitu ahal izateko. BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak atzitzeari eta erabiltzeari dagokionez, Akordio honek uneko BlackBerry Soluzioaren Lizentzia Onartzearen ("**BBSLA**") baldintzak betetzen ditu —lehen BlackBerry Softwarearen lizentzia onartzea izenez ezagutzen zen Akordio horren bidez RIMek eskuragarri jartzen ditu BlackBerry Soluzioentzako RIM zerbitzuak—, baina BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien Baldintza hauei ("**Zerbitzuaren baldintzak**") jarraiki. [www.blackberry.com/legal](http://www.blackberry.com/legal) helbidean dago BBSLA. BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak "Zerbitzuak" dira, eta Zure "BlackBerry Soluzioaren" parte dira, BBSLAN zehazten baitira baldintza horiek. Akordio honen xedeetarako, BBSLAN "Akordioa" aipatzen denean Akordio honetaz ari dela ulertuko da. Beheko "ONARTZEN DUT" aukera sakatu baino lehen, egiazta ezazu Zerbitzuaren baldintza hauek, RIMen pribatutasun-politika eta BBSLA irakurri dituzula.
2. **Eranskinak.** Baliteke BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri jakin bat erabiltzeko Akordio honen eranskin batera sartzeko eskatzea ("**Eranskinak**"). BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri baten Eranskina onartzen duzunean, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri

horrentzako Akordioaren zatia soilik izango da Eranskina. Akordioaren eta Eranskin baten artean gatazkarik sortuko balitz, Eranskina gailenduko da, baina gatazka horretan soilik.

3. **Zure erregistratze-betebeharrak.** Kontuan hartuta aurrerago adierazitako BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak emango direla, onartzen duzu: (a) dagokion erregistratze-inprimakian Zeure buruari buruz eman duzun informazioa ("**Erregistratze-datuak**") benetakoa, zehatza, eguneratua eta osatua dela; eta (b) Erregistratze-datuok ahal bezain arin eguneratuko dituzula, benetakoak, zehatzak, eguneratuak eta osatuak izaten jarrai dezaten.
4. **Edukia bidaltzea.** Akordio honetan edo Eranskinean berariaz adierazten ez bada, Akordio honek ez du BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien bidez ("**Zure edukia**") bidali edo eskuratu duzun inolako informazio, datu, testu, software, musika, argazki, grafiko, bideo, mezu, etiketa edo beste materialen ("**Edukia**") jabetza transferitzen. Webguneetan edo publikoki sar daitezkeen BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietan jartzen duzun edukiari dagokionez, egile-eskubiderik ez duen eta eskusiboa ez den lizentzia aldaezin eta besterengarria ematen diozu RIMi mundu osorako eta betiko, Zure edukia erabili, banatu, erreproduzitu, aldatu, egokitu eta publikoki erakutsi ahal izan dezan, eduki hori BlackBerry IDaren edozein Zerbitzu Eskuragarri hornitzeko edo kudeatzeko beharrezkoa den heinean.
5. **Enpresako kontua.** Enpresa edo bestelako erakunde bat bazara, baliteke enpresako kontuaren ID bat eskuratu edo sartu behar izatea, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak atzitu ahal izateko. Zure enpresak baimendu ez bazaitu, ezin duzu enpresako kontua modu pertsonalean erabili, eta ezin zaio kontu hori beste inori besterendu. Zurea da pasahitza isilean eta segurtasunez gordetzeko ardura. Halaber, zurea da enpresako kontuaren IDari emandako erabileren ardura ere. Onartzen duzu: (a) dagokion erregistratze-inprimakian eman duzun Zeure buruari buruzko informazioa benetakoa, zehatza, eguneratua eta osatua dela; eta, (b) behar denean, ahal bezain arin eguneratuko duzula informazio hori, benetakoa, zehatza, eguneratua eta osatua izaten jarrai dezan.
6. **Blackberry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietako edukiaren izaera.** Zu zara, eta ez RIM, Zure edukiaren erantzule bakarra. RIMek ez du BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriekin lotuta eskuragarri jarri diren Zure Edukia edo besteen Edukia kontrolatzen eta, ondorioz, RIMek ez du bermatzen Eduki horien zehaztasuna, osotasuna edo kalitatea, eta ez da horien erantzule egiten. Ulertzen duzu BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak erabiliz gero, litekeena dela Eduki kaltegarria, desegokia edo gaitzesgarria ikustea. RIMek eta hark izendatutakoek eskubidea izango dute (baina ez obligaziorik), euren erabakimen osoz, edozein Eduki alde aurretik ikusteko, ukatzeko edo kentzeko. Baliteke RIMek BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak erabiltzeko ohitura eta muga batzuk ezartzea, besteak beste —baina hauetara soilik mugatu gabe—, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietan mezu edo elkarrizketa bat edo bestelako Edukia gehienez zenbat egunez gordeko den mugatzea. Era berean, onartzen duzu RIMek ez duela erantzukizunik Edukiren bat ezabatzen bada edo gordetzean huts egiten badu.

Gainera, RIMek ez du adierazten BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietako Edukia edonon erabiltzeko egokia denik edo edonon erabil daitekeenik, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri bat eskuragarri jarri den kokalekuari dagokionez barne, eta ez duzu baimenik Edukia atzitzeko, hura legez kanpokoa den kokapenetan.

7. **Jokaera.** Adosten duzu ez duzula erabiliko eta ez zarela erabiltzen saiatuko BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarririk helburu hauetarako:

- a. eskatu gabeko edo baimendu gabeko publizitatea, eskaintza-materialak, mezu baztergarriak, "spama", "gutun-kateak", "piramide-antolaketa" edo bestelako eskaera-forma batzuk kargatzeko, argitaratzeko, posta elektronikoz bidaltzeko, transmititzeko edo bestela erabilgarri egiteko, helburu horietarako prestatutako guneetan izan ezik.
- b. informazioa, softwarea, tresnak edo bestelako materiala kargatzeko, argitaratzeko, posta elektronikoz bidaltzeko, transmititzeko edo beste modu batera erabilgarri egiteko, Eduki horrek honelakorik badu: (i) birusik, Troiako zaldirik, harririk, atzeko aterik, itzaltzeko mekanismorik, kode maltzurrik, espioitzarik, bot-ik, espioitza-mekanismorik edo spywarerik izan; edo (ii) softwarerik, informaziorik edo bestelako materialik helburu hauekin: (A) errendimendua okertzea, (B) desgaitzea, hondatzea edo kaltetzea, edo (C) baimenik gabeko sarbidea baimentzea zein baimendutako sarbidea ukatzea, edo softwarea, hardwarea, zerbitzuak, sistemak eta datuak baimenik gabeko helburuetarako edo helburu desegokietarako erabil daitezzen eragitea ("**Malwarea**") (eta, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietan Malwarea dagoela ikusten baduzu, berehala jakinaraziko diozu hori RIMi);
- c. beste erabiltzaile batzuen datuak biltzeko edo gordetzeko, erabiltzaile horien idatzizko baimenik gabe;
- d. BlackBerry IDaren edozein Zerbitzu Eskuragarri edo haren edozein zatiri aplikazioak dakiokkeen edozein jokabide-arau edo bestelako arau hausteko;
- e. BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien edozein zati, erabilera edo atzipen erreproduzitzeko, bikoizteko, kopiatzeko, hari alderantzizko ingeniarietza aplikatzeko, saltzeko, salerosteko, birsaltzeko edo ustiatzeko, edo horiek egiten saiatzeko, RIMek berariaz kontrakoa baimentzen duenean izan ezik, edo murriztapen horrek aplikagarri diren legeak urratzen dituenean izan ezik; gauza bera aplikatzen zaio BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri baten bidez atzi ditzakezun BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri loturiko edozein produkturi, informaziorik edo bestelako materialik ere;
- f. BlackBerry IDaren edozein Zerbitzu Eskuragarri (edo gune edo zerbitzu horietara konektatutako sareak) hondatzeko, desgaitzeko edo gainkargatzeko edo edonori BlackBerry IDaren edozein Zerbitzu Eskuragarri edo haren zati bat erabiltzea edo horretaz gozatzea eragozteko. Ez zara BlackBerry IDaren edozein Zerbitzu Eskuragarrietarako edo BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietara konektatutako beste kontu, ordenagailu edo sare batzuetako baimenik gabeko sarbidea eskuratzen saiatuko, pirateatuz, pasahitza aterata edo beste bide batzuk erabiliz. Ez duzu materialik edo informaziorik eskuratuko edo ez zara eskuratzen saiatuko BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien bidez inongo asmo txarrik gabe zure eskura jarritako baliabideak erabiliz;
- g. edozein gai, izen, material edo informazio desegoki, profano, iraingarri, lizun, lotsagarri edo legez kontrarik argitaratzeko, kargatzeko edo banatzeko;
- h. honelako materiala kargatzeko, argitaratzeko, transmititzeko, jakinarazteko edo beste modu batera eskuragarri jartzeko: (i) eskuragarri jartzeko eskubiderik ez duzun materiala, baita edozein legeren edo kontraturen arabera bada ere edo betebeharren bat hautsiz bada ere (hala nola, jabetza intelektualeko legeek babestutako softwarea, barne-informazioa, pasahitzaren informazioa, lan-harreman baten bidez edo erretzientzia-akordio baten bidez jakindako edo ezagutarazitako jabetzaren eta isilpeko

informazioa); edo (ii) edozein alderdiren patente, marka, salerosketa-sekretu, copyright edo bestelako jabetza-eskubide hautsi dezakeena;

- i. edozein negozio-asmotarako gaiak edo zerbitzuak iragartzeko edo salerosketarako eskaintzeko, baldin eta BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak horrelako mezuak onartzen ez baditu;
  - j. BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri espezifikoen, edo horien zati baten partaide ez direnei —edozein baliabideren bidez— banatzeko, foroetatik edukia kopiatzeko, eduki hori ez baita pertsona horientzako jarri erabilgarri; edo
  - k. edozein pertsonaren edo erakunderen izenean jarduteko, edo Zure afiliazioari buruz beste pertsona batekin edo erakunde batekin gezurretan aritzeko edo hura gaizki interpretatzeko ahaleginak egiteko edo gainerakoak engainatzeko gezurrezko nortasun bat sortzeko.
8. **Nazioartean nola erabili.** BlackBerry IDaren zenbait Zerbitzu Eskuragarri munduko edozein tokitatik atzi daitezkeenez, RIMek BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri horiek eskuragarri daudela ez dioen beste herrialde batetik Zure BlackBerry IDa edo BlackBerry IDaren edozein Zerbitzu Eskuragarri atzitzea aukeratzeko baduzu, Zuk hala nahi duzulako egingo duzu eta Zu izango zara dagozkion lege eta arau guztiak betetzearen erantzulea, baita BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriak eta horiekin lotutako Edukia esportatzeko, inportatzeko, erabiltzeko, besterentzeko eta komunikatzeko legeak eta arauak ere betetzearena ere. Begiratu BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri espezifikoen informazioa, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri hori edo harekin lotuta RIMek eskuragarri jarritako edozein eduki —produktuak, tresnak, zerbitzuak edo bestelako materialak barne, baina horietara mugatu gabe— erabilgarri dauden kokalekuei buruzko informazioa eskuratzeko.
9. **BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietan aldaketak egitea.** RIMek eskubidea du BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri guztiak edo horien zati bat edozein garaitan eta noizean behin aldatzeko edo aldi baterako edo behin betiko eteteko, jakinarazita nahiz jakinarazi gabe. Adosten duzu RIM ez dela Zure edo edozein hirugarren alderdiren aurrean erantzule egingo BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietan (edo horien zati batean) aldaketaren bat egiten bada, edo horiek bertan behera uzten badira edo eteten badira.
10. **Hirugarren alderdiak.** Zure eta dagokion hirugarren alderdiaren artekoak dira soil-soilik hirugarren alderdi horrekin edozein BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriren bidez edo horiekin lotuta dituzun korrespondentziak edo tratuak, hirugarrenen ondasunak edo zerbitzuak ordaintzea eta banatzea, eta horrelako tratuekin lotutako beste edozein baldintza, berme edo adierazpide barne. Onartzen duzu RIM ez dela inolaz ere erantzule egingo tratu horien ondorioz galeraren edo kalteren bat izaten bada.
11. **Jabetza intelektualaren eskubideak.** Onartzen duzu litekeena dela BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriek RIMek edo RIMen hornitzaileek (denak batera "**RIM edukia**") edukitzea edo erabilgarri jartzea informazioa, datuak, testua, mezuak, lanak, produktuak, softwarea, musika, soinuak, argazkiak, grafikoak, markak, marka-izenak, logotipoak, izenak, eranskinak, hiperestekak eta bestelako materialak eta zerbitzuak. Erabilera pertsonalerako eta BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriari dagozkien zehaztapenen eta baldintzen arabera soilik erabiliko duzu RIM edukia.

## 12. **Jabetza intelektualaren arau-hausteen salaketak.**

Zure lanaren copyrighta nolabait hautsi dela uste izateko nahikoa arrazoi badituzu edo zure jabetza intelektualaren eskubideak beste modu batera urratu direla uste baduzu, bidali RIMi [legalinfo@rim.com](mailto:legalinfo@rim.com) helbidera informazio hau:

- a. copyrightaren edo bestelako jabetza intelektualen jabearen izenean aritzeko baimendutakoaren sinadura elektronikoa edo fisikoa;
- b. legez hautsi dela diozun copyrighten lanaren edo bestelako jabetza intelektualaren deskribapena;
- c. legea urratzen duen materiala Webguneko zein lekutan dagoen adierazten duen deskribapena;
- d. zure helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa;
- e. gatazkan dagoen erabilera legeak baimendu gabea delako uste osoa duzuenaren adierazpena, jabetza intelektualaren jabeak, bere agenteak edo Zuk eginda; eta
- f. gezurrezko zin egitearen zigorraren menpe, Zuk egindako adierazpena, non esaten den goiko oharrean eman duzun informazioa zehatza dela eta Zu zarela copyrightaren edo jabetza intelektualaren jabea edo baimena duzula copyrightaren edo jabetza intelektualaren jabea denaren izenean jarduteko.

### 13. Amaitzea.

- a. RIMi amaiera-eskaria edonoz bidalita amai dezakezu BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietarako duzun edozein enpresako kontua edo BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietarako duzun sarbidea.
- b. BBSLAN adierazitako RIMen amaiera-eskubideez gainera, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarri jakin baten Eranskinean kontrako baldintzarik ez bada, baliteke RIMek, bere erabakimenean, inolako zitazioz, administrazio bistaz edo auzitegiko prozesuz baliatu gabe, berehala eta zuri alde zuzenetik jakinarazi gabe Akordio hau, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien enpresako kontua edo Akordio honen Eranskin jakin bat amaitzea edo BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietara duzun sarbidea edozein arrazoiengatik etetea edo bertan behera uztea, besteak beste, arrazoi hauengatik, baina hauetara soilik mugatu gabe: (a) Akordio hau edo barnean dituen beste akordio edo arau batzuk ez betetzeagatik, (b) legea betetzeko edo gobernu-erakundeek egindako eskaerengatik, (c) BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrien etenagatik edo materialak aldatzeagatik, (d) ustekabeko arazo teknikoengatik edo segurtasun-arazoengatik, (e) zerbitzua denbora luzez ez erabiltzeagatik, (f) Zu iruzurrezko zein legez kanpoko jardueretan edo jarduera ilegalean aritzeagatik, edo (g) BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarriekin lotuta dauden eta Zure jabetzakoak diren zerbitzuen tasak edo kostuak ez ordaintzeagatik. Gainera, onartzen duzu ez Zuk ez hirugarrenek ez duzuela RIM erantzuleztat joko Akordio hau, Akordioko Eranskin bat edo Zure enpresako kontuak amaitzeagatik edo BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrietarako sarbidea eteteagatik edo bertan behera uzteagatik.

**C. BALDINTZAK ALDATZEA.** RIMek BBSLA egunera edo berrius dezakeen moduz gainera, RIMek eskubidea du, bere erabakimen osoz, Akordio hau eguneratzeko edo berrikusteko, bai negozio-ohituran izandako aldaketak islatzeko, bai legean edo RIMek indarrean dagoen legea ulertzeko duen moduan izandako aldaketak islatzeko. Halaber, eskubidea du eguneratutako eta berrikusitako Zerbitzuaren Baldintza horiek <http://www.blackberry.com/legal>. helbidean

argitaratzeko. Zerbitzuaren Baldintza eguneratuetan edo berrikusietan adieraziko da eguneratze edo berrikuste bakoitza zein egunetan sartuko den indarrean. Akordio honen eguneratzeak edo berrikusteak ez dira atzeraeraginezkoak. Akordio hau berrikusi edo eguneratu eta gero, BlackBerry IDaren Zerbitzu Eskuragarrira sartzen zaren hurrengo aldian bertsio berrikusia edo eguneratua berrikusteko eta onartzeko eskatuko zaizu.

*Berrikuste-data:* 2011ko martxoaren 10a

**Onartzen dut**

**Ez dut onartzen**